



2021/2022 denboraldia

## **12. ZIRKULARRA**

### **OHOREZKO ERREGIONAL MAILAKO LIGA TXAPELKETA**

---

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Ohorezko Erregional Mailako liga txapelketa honela antolatu du:

#### **1. KLUB PARTAIDEAK**

- 1 REAL UNION CLUB SAD
- 2 OIARTZUN K.E.
- 3 ALLERRU K.J.K.E
- 4 TOURING KE
- 5 HERNANI C.D.
- 6 AÑORGA K.K.E
- 7 EUSKALDUNA S.D.
- 8 ZARAUTZ K.E.
- 9 ORDIZIA K.E.
- 10 EIBAR URKO S.A.D.
- 11 ARETXABAleta K.E. UDA
- 12 MUTRIKU F.T.
- 13 ELGOIBAR C.D.
- 14 AMAIKAK BAT K.E.
- 15 UROLA K.E.
- 16 MONDRAGON C.F.
- 17 BERGARA K.E.
- 18 ALOÑA MENDI K.E.

#### **2. LEHIAKETA SISTEMA**

Ohorezko Erregional Mailako liga txapelketa 18 taldek osatzen dute multzo bakarrean. Fase bakarra jokatu da: puntuen bidez eta bi itzuletara (34 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federazioaren Araudi Orokorrean jasotako xedapenak jarraituko dira.

Lehen sailkatua 3. RFEF mailara igoko da eta bigarren sailkatuak Bizkaiko eta Arabako bigarrenen aurka jokatu du Errege Kopako Sailkapen Faserako txartela.

Azken 4 sailkatuak Gorengo Mailara jaitsiko dira.



### **3. IRAUPENA ETA ALDAKETAK**

Partidak 90 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienez zazpi ordezeko egongo dira aulkian.

### **4. ORDUTEGIA**

Klub antolatzaileek posible izango dute euren partida larunbat arratsaldera aurreratzea, 15:30etik aurrera, aurkariaren baimenik gabe.

### **5. DIZIPLINA ARAUDIA**

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

### **6. XEDAPEN OROKORRA**

Gipuzkoako Futbol Federazioaren Batzar Nagusian erabakitakoa gogorarazten dizuegu:

- 1) "Koltxoi" maila izateko irizpidea mantendu Ohorezko Erregional Mailan.
- 2) Ohorezko Erregional Mailan libre geratzen diren plazak ondorengo eran eta hurrenkeran beteko dira:
  - a) Gorengo Mailako talde bat igota.
  - b) Ohorezko Erregional Mailatik jaitsitako taldeen artean ondoen sailkatu denaren jaitsiera saihestuta.
  - c) Eta horrela behin eta berriro.



## **7. COVID-AREN ARAUTEGIA ETA PROTOKOLOA**

Covid-19ari buruzko ezohiko araudia Gipuzkoako Futbol Federazioaren 10. zirkularrean jasota dago. Halaber, ahal den neurrian, SARS-COV-2 (COVID-19) SAIHESTEKO OSASUNAREN BABESARI ETA PREBENTZIOARI BURUZKO PROTOKOLOA BETETZEA gomendatzen da Euskadiko Futbol Federakundearen ENTRENAMENDUETAN ETA/EDO LEHIAKETETAN. Araudi hau hiru lurraldeetako federazioekin batera idatzia eta Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak onartua da.

**Donostia, 2021eko abuztua**

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA  
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL



Iñigo Letamendi Artetxe  
Idazkari Nagusia-Secretario General